

Igandean jakinaraziko dute Ukan Saria nork rabazi duen

Axan Carrere: “Ukan birusa existituko ez balitz, asmatu egin beharko genuke”

ABENDUAREN 3 IGANDEAN, Xabierreko San Frantzisko-ren eguna eta baita Euskararen Nazioarteko Eguna ere, Ukan Sariaren irabazlea ezagutaraziko da. Elkarbizitzaren aldeko Ukan birus deskubritu berriaren izena darma sariak eta hizkuntz politika zuzenen alde gehien egin dutenen lana txalotzea du helburu. Lehen aldia da Ukan saria ematen dela eta handia da sortu duen jakin-mina, handiak baitira Ukan birusaren deskubrimenduak mundu zabalean sortu dituen harridura eta poza ere.

Adituek diote birusak eragin handi onuragarria izango duela hizkuntzen arteko gatazketan. Axan Carrere sareleri ezagunak bere *blog*ean idatzi berri duen bezala, “birusa hain ona den ala ez, euskararen hainbat auzi konpontzen lagunduko digun ala ez, ez dakigu, baina kontu bat dago garbi: Ukan birusari esker, euskarari

Ukan sariak hizkuntz politika zuzenen alde gehien egin dutenen lana txalotzea du helburu

bizkarra erakutsi dion jende asko euskararen egoerari buruzko kontzientzia hasi da hartzen, eta, alde horretatik bakarrik begiratuta ere, Ukan existituko ez balitz, asmatu egin beharko genuke”.

Txikiak izaten ikasi


Ukan hitzak *oparia* ere esan nahi baitu, opari bat da birusaren eragina, jakinarazten baitigu posible dela euskaldutasunaren zirkunstantzia bizitzea eguneroko bizi-poz linguistiko, aukera kultural eta ekarpen intelektual gisa. Euskara bezalako eremu urriko hizkuntzak baztertearen aldekoek, unibertsaltasunaren bandera zabaldurik, ahots bakar batera —berenera— bildu nahi lukete munduaren musika. Baina Miguel Torga idazle portugaldarrak zorrotz asko zioen bezala, “benetako unibertsaltasuna ez da langarik gabeko partikularitasuna besterik”. Mundua ez baita neurri bakar batean, hitz batean, ezta libururik ederrenean ere kabitzen, Gabriel Arestik idatzi zuen ez ironiarik gabe: “Nire munduaz mintzatzen naiz, naiz-lako munduaren neurria”.

Ukan esaten ari zaigu euskara dugula munduaren gure neurria, gure lehen eremu kultural libre. Hizkuntzari eutsi nahi hutsarekin kontribuzio sekulakoa egiten ari gara kultura unibertsalari. “Halatan —zioen Pedro Migel Etxenike fisikariak, birusaren deskubrimendua ezagutarazi zuten egunean—, gure hizkuntza kulturalki garatzen ari bagara, geure izaerari eutsi nahi horrek ezinbestean dakar unibertsaltasunaren alde egitea”.

Adituen ustez, Ukan birusa zera esaten ari omen zaigu argi eta garbi: “Problema ez da euskaldun izatea bera, euskararen zirkunstantziak dira problema. Eta arriskuan dauden giza errealitate orok bezala, euskarak ere eguneroko jarduna du irtenbide bakarra: zirkunstantziak hobet-

Euskararen pedagogia bat sustatu beharko genuke Joseba Sarrionandiak zioenaren bidetik: “txikiak izaten ikasi behar dugu”

zea”. Bide beretik, adituek diote esparru urriko hizkuntza bateko hiztun izatearen pedagogia sustatu beharko genukeela, Joseba Sarrionandiak zioenaren bidetik sustatu ere: “txikiak izaten ikasi behar dugu”.



¡CONTÁGIATE!

EKIN, UKAN, EKIN!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
KULTURA SAILA
Hizkuntza Publikoaren Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Vocosejería de Política Lingüística